

Arrasate

UPRESSU

1995eko
Irailak 29
290. zenb.

ELKARRIZKETA

Jokin Mujika

KIROLAK

**'Mondra'ko
emakumezkoen
denboraldia**

KULTURA

Jesus M^a Artze

**Eguneko menua,
etxean moduan**





ORDUA DA!



EZ GALDU EUSKARAREN TRENA!

- Euskalduntze maila guztiak
- Alfabetatze
- Ikastaro bereziak

Matrikula epea: irailaren 4tik 13ra arte
Plaza mugatuak.

Beka sistema
daukagu!



UDAL EUSKALTEGIA • ARRASATEKO UDAIA

Informazio gehiagorako:

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

Arimazuri, 2 (Eskola Politeknikoaren ondoan) • Tfnoa: 79 70 77 • 79 77 88

Tenpora txarrak EAko zinegotziendako

Azkenean ipar-mendebala eta eguraldi haizetsu samarra geratu e da tenporetan. Gure arbasoen meteorologiari kasu eginez gero, beraz, udazken 'freskoa' eta gorabeheratsua izango dugu. Tenpora politikoei kasu eginez gero, ostera, herriko asteburuko gertakizun politiko nagusia EAko hiru zinegotziek gobernu batzarrari emandako ostikoa izan zen. EAkoen noraeza eskandaluzkoa da -Euskal Herrian ere bai- eta tenpora politikoak betetzen badira, erruki diet EAko hiru zinegotziei. Baina erruki handiagoa diot oraindik alkateari, euren politika moldeetan gobernabilitatea sakratutzat hartzen dutenek Arrasateko gobernabilitatea behin eta berriro boikoteatzen dute eta. Beraz, Arrasateko Hirukoa lanerako gai baldin bada, har beza behin-goz udala bere eskuetan, eta bestela utz dezala adar soinua alde batera, erridikulokak ere bere goia dauka eta.

Maiatzeko udal hauteskundeetatik gaurdainoko EAko zinegotziaren jarrera intermitentearenaren tankerakoa izan da - orain bai, orain ez-baina... meritoren bat ere aitortu behar zaie, Hirukoaren -eta batez ere EAren- etenbako tripakomina- ren arrazoi nagusienetakoa izan dira. Ez da gutxi. Baina horrez gain, ausardia ere aitortu behar zaie: imaginatzen al dituzue, Zubizarreta buru, HBko bost zinegotziak Mahai Nazionalak agindutakoaren aurka? Mondraueko kale eta tabernek entzun beharko luketena! Baina gehiago entzun beharko genuke gainerakook El Diario

Vasco, ETB, TVE eta abarrengandik: "HBko zinegotziok beldurra gainditu dute...", "Rebelión de los concejales de HB en el feudo abertzale de Mondragón con el carismático Zubizarreta al frente...bla, bla bla...". Tira, batasunoen diktadurari beldurra galdutako bost erdi-heroi berri liriateke gutxi gora behera. Euren egoera pertsonala ez litzateke oso gozoa. EAko hiru zinegotziena ere izan ez den moduan, suposatzen dut.

Balizko kasu hori imaginatu dut, HBko beste kargu batzuek ere zuzendaritza-ekin desberdintasun txikiena agertu dutenean ere, erdi-heroi moduan atera dituztelako. EAko hauei, ordea, traidore kutsua ematen diete komunikabideetan.

Joan den astean, EAko zinegotzi taldeak, emandako barbari muzin eginez, uko egin zion gobernu batzarrari. Ordura arte mantendutako jarrera zoriontzekoa dela uste dut, besteak beste zuzendaritzari baino bere herriko EAkideei egin dietelako kasu, eta Arrasateko EAren azken zortzi urteetako koherentziari eutsi izan diotelako. Non geratzen da orain guzti hori? Gaitza egiten zait pentsatzea EAko zinegotziek HBrekin baino PSOerekin gobernatu gurago dutela. Zuenganako Gipuzkoako EAren zuzendaritzaren jokaera ikusita, Garaikoetxea eta Arzalluzen sasoiak datozkit burura, Arzalluzen alderdikide disidenteei -gaurko EAkoak- egurra ematen, hots, Irizar jauna Arrasatekoekin egiten ari dena.

XABIER LETONA

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65, Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube eta Itaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanca Jaurregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arriburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kofi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larriñaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti. **Banaketa arduraduna:** Xabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Goio Arana

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

GORKA

ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

Memesa


79 42 22



Aldizkari honek Arrasateko
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Euzko Jauriaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak: CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIENDO
OTALORA
RUIZ



Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

Harpidedun, berritu edo oparitu harpidetza!




Arrasatetik kanpo ARRASATE PRESS jasotzen dutenentzat. Arrasatetik kanpokoentzat ARRASATE PRESS oparitu nahi dutenentzat.

Gure kontu korrontean **2.500 ptako** diru sarrera egin dezakezu **urriak 20a baino lehen** kontu korronte zerbaki hauetako batean:

- KUTXA 001026694.8 (Portaloiko bulegoa).
- EUSKADIKO KUTXA 001.002.7600 (Iturriotz kalekoa).


Ingresoa egitean garbi adierazi, mesedez, aldizkaria zeinen izenean jaso behar den.

ARRASATE PRESS kanpotar bati bidali nahi badiozu zatoz gure bulegoetara eta bertan informatuko zaitugu.

 **77 08 15**

Azoka Kalea, 1 • ARRASATE

Nor dago GALen atzean?




**Joseba Bayer
Langilea
(31 urte)**

Baietz uste dut, duda barik. Nire ustez Felipe Gonzalez dago trama horren atzean.



**Idoia Susaeta
Langilea
(26 urte)**

Gai hori ez dut gehiegi jarraitzen, baina GALen atzean Estatua dagoela uste dut.




**Alfredo Garcia
Langilea
(43 urte)**

Zaila da hori jakitea baina telebistan Estatua dagoela esaten dute eta nik ere hori uste dut. Duda barik.



**Josefa Orgaz
Langabetua
(26 urte)**

Ez dakit nor egon daitekeen atzean, baina ziur norbait badagoela.



**Karlos Olabe
Jubilatua
(58 urte)**

Norbaitek manejatuko du, beraz norbaitek egon behar du atzean baina ez dakit nor.



**Isabel Nuñez
Langabetua
(36 urte)**

Ez naiz ausartzen atzean nor dagoen esatera, baina norbaitek manipulatuko behar du.



**Ana Santana
Langilea
(25 urte)**

Ez dakit... norbaitek badaki? Politikaz paso egiten dut, baina Estatua egon daitekela uste dut.



**Kerman Sagasta
Langilea
(23 urte)**

Zer esango dizut nik ba? Politikariak, Guardia Zibila... guztiak daude horren atzean.



**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE



- Ordenagailu eta softwarea
- Ploteatze eta eskaneatze zerbitzu berria
- Eta orain **INFORMATIKA IKASTAROAK**

INFORMATICA ALTO DEBA

Uribarri Etorbidea, 22 • Tfnoa: 79 64 74 ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Igoalatorioa79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze Gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria77 03 45
 • Espezialitateak77 05 78
 77 12 63
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulantiak45 87 44

Udalitzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza088

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua .79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea .088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasa900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubiliatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte79 87 77
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterongo liburategia
 Monterron77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 29

Egunez eta gauez : Ruiz. Maala.
 10ak arte: Mozos. Bergara.

Larunbata 30

Egunez eta gauez : Morales. San Andres.
 10ak arte: Camacho. Bergara.

Igandea 1

Egunez eta gauez : Camacho. Bergara.
 10ak arte: Azkoaga. Ferrerías.

Astelehena 2

Egunez eta gauez : Puy. Bergara.
 10ak arte: Español. Iturriotz.

Asteartea 3

Egunez eta gauez : Cuellar. Bergara.
 10ak arte: Corcuera. Musakola.

Asteazkena 4

Egunez eta gauez : Estella. Bergara.
 10ak arte: Irizar. Erguin.

Osteguna 5

Egunez eta gauez : Mozos. Bergara.
 10ak arte: Amezua. Santamaina.

29 OSTIRALA

• **ZINEA**
 "La princesa cisne" 7etan. "Una historia del bronx" 10etan.

• **ZERRAJERAKO CC.OOko ASANBLADA**
 Arratsaldeko 5.30etan Sindikatuaren lokaletan. Gaiak: Enpresaren egoera eta CC.OOko kongresua.

• **TRONBOI EMANALDIA**
 Tronboi gelen aurkezpena Arrasate Musikaleko areto nagusian arratsaldeko 6etan.

• **SAN MIGELAK GARGARTZAN**
 Arratsaldeko 7etan etxalferuak, buruhandiak eta dultzainariak. Ondoren, Ines eta Naia-rarekin erromeria. 7.30etan meza. Gaueko 11etan Eguzki taldearekin dantzaldia. 12etan Lamina eta Neanderthaldeko gizonei ongietorria. Arratsaldeko 6etatik 10.30etara Garagartzako Auzoetxean buzkantzak tomatearekin salgai egongo dira.

• **SAN MIGEL JAIK ANGIOZARREN**
 Goizeko 11etan meza. 12etan luntxa. 4.30etan umeendako jolasak. 8.30etan Imanol eta Zabaletarekin kalejira. 9etan herri afaria. Gaueko 11.30etan Imanol eta Zabaletarekin dantzaldia eta goizaldean txokolatada.

• **GRIPEAREN AURKAKO TXERTOA**
 Musakolako auzo alkatetzan eguerdiko 12etatik ordubata arte.

PINTURA ERAKUSKETA HARRESI ARETOAN

Gloria Martizenen pintura erakusketa Harresi aretoan urriaren 8a arte. Ordutegia: egunero arratsaldeko 6etatik 8etara. Larunbat eta jaiegunetan eguerdiko 12etatik 2ak arte eta arratsaldeko 6etatik 8etara.

30 LARUNBATA

• **ZINEA**
 "La princesa cisne" 5etan. "Una historia del Bronx" 7.30etan eta 10etan.

• **MARITXU KAJOI BEDE-RATZIUURENA**
 Arratsaldeko 6.30etatik aurrera, Maitxu Kajoipean.

• **SAN MIGELAK GARGARTZAN**
 Eguerdiko ordubatean Txikitxu taldearekin Euskal Dantzen erakustaldia. Arratsaldeko 5etan Gorritiren eskutik jaialdia zezen, pottoka eta oilarrekin. 6.30etan Txirta antzerki taldea. 7.30etan Boston taldearekin erromeria. Gaueko 10etan Txinparta taldearekin dantzaldia. 4etan txokolatada. Arratsaldeko 6etatik 10.30etara Garagartzako Auzoetxean buzkantzak tomatearekin salgai egongo dira.

• **MUSIKA KLASIKA EMANALDIA**
 Amaia antzokian arratsaldeko 7.30etan. Arrasate Musikalek antolatuta.

• **SAN MIGELAK ANGIOZARREN**
 Arratsaldeko 3etan plater tiraketa. 4etan Kataplofi malabarista taldea. 7etan mus txapelketa. 10etan briska txapelketa. 11.30etan Maixa, Itziar eta Garbiñerekin dantzaldia.

• **MASAIA IKASTAROAREN HASIERA**
 Zapaturu arratsaldeko 5etatik 8etara abenduaren 2a arte. Arrasateko Yoga Elkarteak antolatuta.

1 IGANDEA

• **ZINEA**
 "La princesa cisne" 5etan. "Una historia del bronx" 7.30etan eta 10etan.

• **SAN MIGELAK GARGARTZAN**
 Eguerdiko 12etan meza. 12.30etan haur jolasak eta ondoren Vermout dantza. Arratsaldeko 2.30etan herri bazkaria eta 6.30etan Txinparta taldearekin erromeria.

• **SAN MIGELAK ANGIOZARREN**
 Goizeko 11etan meza. 12etan luntxa elizako atarian. 4.30etan aizkolari, harrija-sotzaile eta trontzalariak. 9.30etan "Gezalaga anaiaik"-ekin dantzaldia.

• **XIV. SAN MIGEL LASTERKETA ARETXABALETAN**
 XIV. San Migel txirindulari lasterketa jubeniil mailan Aretxabaletan. Irteera goizeko 10.30etan Durana kaletik, 83 kilometro guztira.

• **KILOMETROAK 95 DONOSTIAN**
 Kilometroak 95 Donostian ospatuko da eta AEDk autobusak antolatu ditu. Irteera goizeko 9.30etan Zaldibar pilotalekutik.

HASIERAKO YOGA IKASTAROA

Hasiera urriaren 2an eta bukaera azaroaren 29an. Astelehenero eta asteazkenero goizeko 9.45etan, arratsaldeko 6.30etan eta gaueko 8.30etan. Informazio gehiagorako deitu 79 35 76 zenbakira. Arrasateko Yoga Elkarteak antolatuta.

2 ASTELEHENA

- **ZINEA**
"Una historia del bronz" 7etan eta 9.30etan.
- **EUSKAL HERRIA ASKATU KONTZENTRAZIOA**
Euskal Herria Askatu lemapean kontzentrazioa plazan arratsaldeko 8etan. Amnistiaren aldeko Batzordeak antolatuta.
- **GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA**
Gesalibarren eguerdiko 12etik ordubata arte eta Gargartzan 12.30etatik ordubata arte.

SALOI-DANTZA ETA SUKALDARITZA IKASTAROAK

Saloi-dantza ikastaroa astelehenetan 3.30etan eta 5.30etan. Urriaren 9an emango zaio hasiera. Sukaldaritza tradizionala ikastaroa asteazkenetan arratsaldeko 6etan, urriaren 4an hasita. Ekin emakume elkar-teak antolatutako ikastaroak. AEDko lokalean burutuko dira.

FAMILI ETA GIZARTE HEZKETARAKO ZENTRUKO IKASTAROAK

Puntu eta Gantxilo ikastaroa urriaren 6an hasiko da ostiralero 3.30etatik 6etara. Irakaslea: Asun Mendizabal. Euskara eta arnasketa tekniken ikastaroak urriaren 9an hasiko dira. Euskara ikastaroa astelehen eta ostiraletan arratsaldeko 4etatik 5.30etara. Arnasketaren tekniken astelehen eta ostiraletan goizeko 9.30etatik 11.30etara. Informazio gehiagorako deitu 79 04 59 zenbakira

3 ASTEARTEA

- **ZINEA**
"Una historia del bronz" 7etan eta 9.30etan.
- **ARRASATE 94 LEHIAKETA**
Arrasate 94 lehiaketak, Jokin Zaitegi itzulpen laburren sariketa liburuaren aurkezpena Montterronen arratsaldeko 7etan.
- **GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA**
Udalan eguerdiko 12etatik ordubata arte eta Meatzerrekan eguerdiko 12.30etatik ordubata arte.

ARGAZKI IKASTAROAK ASAK ANTOLATUTA

Sakontze mailako ikastaroa, urriaren 9, 10, 16, 17, 18, 19, 23, 24, 25 eta 26an, ASA elkartearen lokalean, arratsaldeko 7.15etatik gaueko 9.15ak arte. Guztira 20 ordu. Prezioa: 3.500 pta. (langabetu eta ikasleek 2.000 pta). Hasierako maila ikastaroa: Azaroaren 7, 9, 14, 16, 21, 23, 28, 30 eta abenduaren 12 eta 14an. Guztira 20 ordu. ASA elkartearen lokalean, arratsaldeko 6.30etatik gaueko 8.30ak arte. Prezioa: 3.000 pta. (Langabetuek eta ikasleek 1.500 pta).



MENDI IRTEERA BESAIDEREKIN

Piriniotara (Espingoko Harana, Perdigero) mendi irteera urriaren 12, 13, 14 eta 15an. Izenematea urriaren 3, 4 eta 5ean, arratsaldeko 7.30etatik 8.30etara Besaideren Egoitzan.

4 ASTEAZKENA

- **GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA**
Bedoñan eguerdiko 12etatik ordubata arte.

5 OSTEGUNA

- **ZINEA**
"El primer caballero" 7etan eta 9.30etan.



ARTE MARIZIALEN EUSKADIKO I JAIALDIA

Aretxabaletako Hirugarren Mundu Taldeak antolatuta. Musakolako Kiroldegian, urriaren 7an, arratsaldeko 4.30etatik 7.30etara. Estiloak: Aikido, Judo, Jiu-Jitsu, Kyokushinkai eta Ninjuesu. 50 partaide baino gehiagok eskainiko dute ikuskizuna. Sarre- ra: helduendako 500 pta. eta gazteendako 200 pta. Bildutako dirua Ruandako errefuxiatuei bidaliko zaie.

UNTZILLAKO JAIK

Untzillako jaiak urriaren 6tik 8ra. Ostiraletan gaueko 10etan bertso jaialdia: Sebastian Liza-so eta Andoni Egaña bertsolariekin. Larunbatean besteak beste Lotxo taldearekin dantzaldia eta Murumendi elkarteko XIV. Bolo txapelketa.

“Orain, Gasteizko hirukoaren defentsan, EAko buruzagiak gauza bera egiten ari dira Arrasateko zinegotziekin. Zalantza izpirik ez dut Arrasateko EAkoek, PSOEkoa baino, Herri Batasunako alkatea dutela nahiago. Non dago alderdiko oinarriari zor zaien errespetua? 1986an, Nafarroako Gobernua hiriburu batzutako alkatez- tzen truke (Gasteiz eta Bilbokoen truke, oker ez banabil) eman nahi zutela leporatu zioten nafar jeltzaleek Arzallu- zi.

EAJtik kanporatuak izan ziren oraingo EAko kideen iritzia interesgarria litzateke oso.

(...) Kronika hau idazterakoan (irailaren 14ean) ez dut oraindik EAko beteranoen iritzirik entzun edo irakurri. Agian, alderdiko barne bideetatik abiatu da esperientzia- ren ahotsa. Behar bada, Arrasate sobera urrun dago.”.

Gaizka Aranguren, irailak 21.

Egunkaria

“6.400 metrotik 7.300 metrora igo dugu gaur, zazpi orduko ibilaldia egin ondoren. Hirugarren kanpa- menduan gaude eta badirudi Cho Oyu-ko azken eguneko ekinaldia faktura pasatzen ari zaigula, hanketan neke handia sentitzen dugu eta. Gauzak ondo badoaz bihar egingo dugu gailurrerako saiakera”.

(Irailak 26.)

“Egia esan neke neke eginda iritsi gara gailurrera. Eskerrik asko iriariaren bidea jarraitu gaituzunei eta ea laster elkartzen garen!”

Felix Inurrategi, irailak 27.



Zein da Hitzarmeneko Eskolen Mahaitik egin nahi duzuen ahalegina?

Hitzarmeneko Eskolen Mahaia orain dela urte- bete jaio zen, haur eta gazteen aisialdia euskalduntze- ko asmoz. Orduetik euskara gizar- teratzeko ahaleginak egiten ari gara, iaz egindako inkestak era- bileraren eta ezagueraren arte- an desberdintasuna dagoela erakutsi zigun eta. Hau da, esko- letan euskaraz ikasten duen zenbait haurrek gero kalean ez du euskara erabiltzen.



Amaia Balda
Hitzarmeneko
Teknikaria

Horregatik, eskolaz kanpo- ko iharduerak antolatzen dituz- ten elkarte eta akademiei gutun bana bidali diegu, ekintzak antolatzerakoan euskararen erabilera kontuan izan dezatela eskatzeko. Orokorrean honako gauzei garrantzia ematea eskatu diegu: monitore, entrenatzaile edo ira- kasleak euskaldunak izaten ahalegintzea; monitoreak euskaraz jaki- nez geró, talde euskaldunak antolatzea eta ihardueren berri ema- teko ateratzen dituzten oharrak euskaraz izatea.

Guk gure aldetik laguntza eskaintzen diegu talde guzti horiei. Gazteleraz duten materialea, adibidez, euskaratzeko konprome- zua hartzen dugu eta monitoreek euskaraz trebatzeko prestakuntza behar badute, horretan ere laguntzen dugu.

Oraingoz gutunak baino ez ditugu bidali, guztira 80. Orain eran- tzunen zain gaude. Komenigarria litzateke gutuneia erantzutea, horre- la zer behar dagoen jakin eta datozen urteei begira plangintza egi- teko aukera izango dugu.

Baster-alde

Jatetxea

Denboraldiko platerak, giro onenean

Galartza auzoa *ARETXABALETA*
Tfnoa: (943) 79 24 58

Belem

Zabaldu berria!

- Portugaldik ekarritako artikuluak
- Prezio eskusiboak
- Etxerako, momentuan jatzeko eta eskuz egindako artikuluak

Olarte, 6 Tfnoa: 79 25 71 • Arrasate
Herriko plaza, 10 Tfnoa: 79 59 78 • Aretxabaleta

Kooperatibei bisita

Euskal Herriko Unibertsitateak eta GEIZKIK (Gizarte, ekonomia eta zuzenbide kooperatiboaren institutoak) antolatuta, munduko toki desberdinetatik etorritako 40 lagun Arrasateko kooperatibak bisitatzen izan ziren asteartean. Autogestioaren gaian Arrasate erreferentzia garrantzitsua dela eta ezagutu nahi izan zituzten hemengo kooperatibak. Bisitarien berbetan, Arrasateko kooperatibismoa esperientzia aberasgarria da.

Goizean lantegiak bisitatu zituzten eta arratsaldean autogestioaren inguruko hitzaldiak entzun zituzten Ikasbiden.



Artzai txakurrak Oñatin

Nazioarteko XXXVI. ardi txakur txapelketa burutu zen igandean Oñatiko Santa Lutzia zelaian. Leku desberdinetatik etorritako hamabi zakur eta artzaik parte hartu zuten lehiaketan eta saria, Abadiñoko "Bat" txakurrak eraman zuen. Jose Mari Plazaola arrasatearra ere partaideen artean zegoen, baina ez zuen oso egun ona izan eta zorte handi barik lehen frogan kanporatu zuten.

Ikasturtea hasi

Famili eta Gizarte Hezketarako zentruak joan den astean eman zion hasiera 95/96 ikasturteari. Aurtengorako ere ekintza eta ikastaro desberdinak antolatu dituzte zentruko arduradunek eta nobedade moduan, euskara ikastaroa ageri da. Iazko ikasturtearen balantzea egiterakoan,

partehartzaile kopuruari dagokionez ona izan zela azpimarratu zuten.

Aurkezpen ekitaldia zela eta, emakume ugari bildu zen zentruaren lokalean.

Lapurretak Uharkapen

Astebukaeran lapurrak sartu dira Dragados enpresak Uharkapen dituen txaboletan. Dragados

Uharkapeko obra egiten ari da eta lapurrek gauza baliotsuak eraman ez badituzte ere, toki horretan lapurretan egitea arriskutsua dela jakinarazi dute. Azken hiru hilabeteetan hiru aldiz lapurretan egin diote Dragados enpresari.

Gudari Eguna

Asteazken arratsaldean

manifestazioa burutu zen Arrasaten Gudari Eguna zela eta. Manifestazioan ehundik gora lagunek parte hartu zuten. Partaide bakoitzak larrosa bat eramaten zuen eskuan eta manifestazioaren hasieran, "Jo Ta ke irabazi arte" idatzita zuen pankarta irakur zitekeen.

JAIOTZAK

- Ainitze Diaz Estrella. Irailaren 10ean.
- Ander Manzano Lopez de Bergara. 16an.
- Sara Gomez Conde. 16an.
- Ruben Estrella Merchan. 19an.
- Nerea Tena Garcia. 21ean.

EZKONTZAK

- Luis Maillo Tobal eta Maria Teresa Azkarraga Mendizabal. Irailaren 16an. Elizaz.
- Julian Arexolaleiba Biteri eta Esther Perez de Dios. 17an. Zibilez.

HILDAKOAK

- Ramon Nicolay Bueno. 21ean. 63 urte.
- Fernando Ruiz Alonso. 22an. 63 urte.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



* Errukane Aperribai

Gazte Txokoen lehen urtebetetzea

Pasa den larunbatean, irailaren 23an, San Andres eta Musakolako Gazte Txokoek lehen urtebetetzea egin zuten. Txokoak auzo bi horietako 14 urtetik 17 urtera bitarteko gazteei zuzenduta daude, beraien aisialdi denborarako aukera ezberdin bat bezala.

Zergatik sortu ziren Gazte Txokoak?

Aspaldidanik kezka genuen auzoetako gazteek ez zutela beraien denbora librean lagunekin egoteko, jolasteko, beste batzuekin harremanetan jartzeko, ekin-tza desberdinak burutzeko eta orokorrean beraien gazte izaera adierazteko gunerik. Ondorioz, kalera jo eta

gazteei, euren aisialdi denborako behar eta nahiei buruz galdetu genien. Galdeketa honetan behar izugarriak somatu ziren eta hauei erantzun bat ematen hasteko ireki ziren Gazte Txokoak.

Urte honetan zehar bi auzo hauetako gazte xoei, beraien nahi eta beharrak asetzeko aukera eman zaie. Esan dezakegu gazteek ekin-

.....
“Galdeketa egin ondoren behar izugarria somatu ziren eta hauei erantzun bat emateh hasteko ireki ziren Gazte Txokoak”

tza honi oso erantzun positibo eman diotela.

Gazte Txokoetan egingako asistentzia neurketetan, Musakolan batz best 22 lagun izan ditugu egunero eta San Andresen 30.

Bestalde ekintza kultural ugari antolatzeke aukera ere izan dute gazte hauek: kitarra ikastaroa, bi auzoetako jaietarako haurren tailerrak, taila ikastaroa, malabarismo ikastaroa, txapelketa ugari, diapositiba rallya, kirol ekintzak, beste batzuen artean.

Guzti hauekin aurrez markatuta genituen hainbat helburu landu ahal izan ditugu: auzo hauetako gazteei bilgune bat eskaini, euskara sustatu, aisialdi denborarako alternatiba berriak sortu, gazte txoen autoantolaketa bultzatu, hainbat giza-balore landu (elkarrenganako errespetoa, solidaritatea...) eta abar.

Azkenik, zorionak ekin-tza guzti hauek aurrera ateratzen lagundu diguten guzti.

* **GAZTE TXOKOEN KOORDINATZAILEA**

USTEAK USTE

ETIKA VERSUS POLITIKA?

EAko zinegotzien tokian egon izan banintz... ba ez dakit ondo zer egingo nukeen. Eta zuek zer egingo zenukete? Herriarendako onena dela deritzozuenarekin aurrera egin ala partidoaren goialdetik datozen aginduak bete? Beste modu batera ere azaldu daiteke galdera: **Gallastegi, Urizar eta Barriocanalen botoak beraienak ala EArenak dira? Goiko aginduei jaramonik egin barik, hiru zinegotziek duela aste pare bat iragarri zutenarekin aurrera egin izan balute, EAtik kanporatuko lituzkete. Hori dirudi behintzat jaso zituzten mehatxuen arabera. Baina hala ere, independente gisa zinegotzi lanean jarraitzeko aukera izango lukete. Argitzeke dago oraindik Arrasateko alderdikideen laguntzarik izango zuten edo ez, Arrasateko EAK arazo honetan ez du eta EA bezala ezer esan. Etikoa litzateke aginduei uko egitea? Etikoa da herriaren interesa eta norberak pentsatzen duenaren aurretik alderdiaren aginduak jartzea?...**

Bukatzeke, saltsa honetan guztian garbi samar, baina hala ere urrun entzuten dudana gauza bakarra: dimisio hotsak entzun daitezke.

BEÑARDO KORTABARRIA

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldisper kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

Altzariak
Diseinua
Apainketa

**M
ARENAZA**

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

Bultzakada berria ospital zaharreko kultur etxe proiektuari

Ospital zaharra kultur etxe bihurtzea da Kultura Batzordeak datozen urteei begira jarri duen lehentasuneetarikoa bat. J.L. Arexolaleiba Kultura Batzordeburuaren esanetan, "beharrezkoa da kultur etxe integral bat egitea. Talde batzuk lokal egoki barik eta beste batzuk lokal eske daudenez, ezinbestekoa da proiektuari heltzea, bestela taldeendako arazoak areagotu egingo dira eta".

Orain dela hiru urte, ospital zaharra kulturgune bihurtzeko proiektua egin zen, baina orduan eta gaur egun dauden beharrak aldatu egin direnez, orain Kultur Batzordea berriz ere beharrak definitzen hasi da. Hori egindakoa, hirigintzakoek plangintza berria burutu beharko dute.

Oraindik hala ere, ospitalarekin zerikusia duten hainbat gai zintzilik dago eta ezertan hasi baino lehen horiei irtenbidea aurkitu beharko zaie. Arazo garrantzitsuena frantziskotarrek dagoena da. Frantziskotarrek ospitaleko gela batzuk katekesia emateko erabiltzen dituzte



ARKOK, Txalapartariak eta Margo Taldeak txoko bat dute ospitalean. Ludoteka eta Gaztetxea ere bertan dago.

eta Udalak bere jabetzakoak direla esaten duen arren, frantziskotarrek kontrakoa diote eta ez dute lokalak utzi nahi. Auzi hori aspaldikoa da baina lehenbailehen konpondu nahi denez, gobernu taldeak frantziskotarrek berriz ere elkarrizketetan hastea erabaki du.

Diru kontuak

Dirulaguntzak direla eta,

Diputazioarekin ere harremanetan jarria da Udala. 92-95 planean kultur etxerako 60 milioi ematea onartu zuen Diputazioak baina lanak irailaren 30a baino lehen hasi behar zirela ere finkatu zuen. Oraindik ez denez ezer egin, laguntza hori hurrengo planean sartzea eskatuko zaio Diputaziori. Arexolaleibaren iritziz "Diputaziotik aurrikutsita zegoen laguntza bailara

osorako erakusketa gela bat egiteko zenez, kontzeptua aldatzeko ere eskatuko diegu. Kultur etxea egiteko laguntza motz geratzen da eta handiagotzea planteatuko diegu".

Ospitalak 1.500 m² inguru ditu eta orain oso egoera txarrean dago. Zaharberritze lanek luze joko dute eta inbertsioa handia izango da. Gaur egun hainbat taldek du lokala ospital zaharrean.



**OSTATU
Jatetxea**

OSPATU MARITXU KAJOI
GUREKIN!

LAGUNARTEKO AFARIAK

Leintz Gatzaga ■ Tfnoa: 71 53 71



*Zuri
Garbiketak*

- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

beatriz

oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tfnoa: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84



beinke



Kalean geratzen diren txakurrak Gasteizko txakurtegira eramaten dira.

Txakurtegia, noiz eratu itxaroten dagoen zerbitzua

Orain dela bi urte inguru Deba Garaiko Mankomunitateak txakurtegia egiteko asmoa azaldu bazuen ere, egitasmoak ez zuen aurrera egin. 10.000 biztanle baino gehiago duten herriek legez txakurtegia eduki behar dute, baina inguruko herrietan ez dago horrelako zerbitzurik eta kalean geratzen diren txakurrak Gasteizko txakurtegira eramaten dira. Aurten bost txakur jaso ditu Arrasateko udaltzaingoak. German Berezibar, Mankomunitateko gerentearen esanetan "datozen lau urtetako plangintza egiterakoan zerbitzu horren eraketa kontuan izan nahi da". Gerentearen

iritziz, "beharra badago eta ez bakarrik kalean geratzen diren txakurrak jasotzeko. Jabea kanpora joaten denean ere, animalia txakurtegian uzteko aukera izango litzateke".

Mikro txip-en kanpaina

Abenduaren 31n txakurrei mikrotxip-a jartzeko kanpaina bukatuko da. Kanpainaren helburua txakurrei txipa jartzea da eta horrela animaliren bat galtzen bada, txipak duen informazioaren arabera jabea zein den jakiteko aukera izango da. Txipak albaitegietan jartzen dira.

Udaltzaingorako todoterrenoa

Udalak "Maveric" markako todoterrenoa erosiko dio Mugarri kontseziarioari. Udaltzainek auzoetara joateko auto egokirik ez dutela eta 2.750.000 pta.ko todoterrenoa erostea erabaki zen.

MCCK "Ereduzko 50 komunitateen" saria jaso

Nazio Batuen 50 urterena dela eta, "Nazio Batuen Lagunak" izeneko erakundeak antolatutako lehiaketako sari bat eskuratu du MCCK. Garapen sozial eta ekonomikoari dagokion saria jaso du MCCK, erakundearen ustez Nazio Batuen gutunean ageri diren helburuak bete ditu eta. Erakunde ez gubernamentalak adierazi duenez, giza baldintzak eta egoera ekonomikoa hobetzen ahalgindu da Arrasateko kooperatibismoa. Hamar sail izan dira baina berrogeitamar sari banatu dira. Guztira 360 proiektu aurkeztu dira.

Saria Jesuk Larrañagak jaso zuen New Yorken, St. John The Divine elizan.

ECCO Trabajo Temporal

Adm. Bai. 79/000294 zenb.
Enplegu Zuzendaritza
Orokorra

Helbidea:
Ferrerias kalea, 2
solairuartea.
20.500 ARRASATE

"ECCO Trabajo Temporal"-ek irailaren 19an delegazio berri bat ireki du Arrasaten, Deba Garai eta Behe Aldeko langile eta bezeroei zerbitzu hobea eskaintzeko.

Isabel Bouzon, Raket Belategi eta Alatzne Mendialdua zuen zerbitzura daude ECCO ARRASATE berrian.

ECCO - Trabajo Temporal ECCO T.T.S.A Aldi baterako lan enpresak

Berehala behar ditu:

- | | | |
|--------------------------|-----------------------|----------------------|
| • Saltzaileak | mekanika, elektronika | • Prentsa mekanikari |
| • Pintoreak | • Hornitzaileak | doitzaileak |
| • Administratiboak | • Muntatzaile | • Fresatzaileak |
| • Idazkariak | mekanikoak | • Zamariak |
| • Kutxazainak | zenbakizko | • Soldatzaileak |
| • Telefonistak | kontrola | • Garbitzaileak |
| • LH II makina-erraminta | • Tornalariak | • Peoi industrialak |

Esakizunak: • Esperientzia. • Deba Goi-Behe aldean bizitzea.

Interesatuak bidali Curriculum Vitae+ oraingo argazki bat • Arrasateko 143 Posta Kutxatilara



Plenoa amaitzean gobernu taldean ez sartzea erabaki dutela aurreratu zuen Isabel Gallastegik.

Zentsura mozioa aurkeztuz gero EAK baiezkoa emango du

“Orain arte inizatiba larregi izan dugu eta aurrerantzean beste alderdiek izan duten jarrera pasiboa hartuko dugu” jakinarazi zuen I. Gallastegi zinegotziak, ATBri egindako adierazpenetan. EAJ eta PSE-EEaren jarreraren gainean ari zen EAKo zinegotzia, alderdietako exekutibek mozioa aurkeztu behar dela esaten duten arren, oraindik ez dute horrelakorik egin eta. Mozioa aurkeztuz gero, EAK baiezkoa emango duela berretsi zuen Gallastegik. “EAK hitza beteko du eta hor egongo gara gu edo beste batzuk esandakoa betetzeko”. “Beste batzuk” esatean zer adierazi nahi zuen galdetzean, “hiru zine-

gotzi gara eta bakoitzak bere iritzia du baina EAK beteko du” erantzun zuen.

Ostiralean egindako plenoa amaitzean kazetarien galderei erantzun zien Gallastegik eta “alderdiak ezarritako diziplinaren ondorioz” oposiziora pasatzea erabaki zutela aurreratu zuen. EAren zinegotziek plenoen ordutegia aldatzearen alde bozkatu arren pronostikoak ez ziren bete. Bukaeran Suradesako ordezkariak EAJko Aresti eta PSE-EEko Jimeno izatearen alde bozkatu zuten EAKoek. Hala ere hiru zinegotzien artean ez zen adostasunik izan, ordezkariak izendatzean Barriocanal abstenitu egin zen eta.

Akordioa Maritxu Kajoi dela eta

Maritxu Kajoi Batzordea eta Parrokia zaharberritzeaz arduratzen den Batzordea akordio batera heldu dira aste honetan. Akordio horren arabera aurten ohiko tokian jarriko da Errosarioko Amabirjinenaren irudia, hau da, parrokiak erdiko kaleari begira duen atean.

Hori adostez gain, jaia antolatzeaz arduratzen den batzordeak parrokiaren batzordeak egindako proposamen bat onartu du eta horren arabera, datorren urtetik aurrera Maritxuren irudia beste toki batean jarriko da, seguruenik parrokia inguruan. Oraingoan, hala ere, bi batzordeek ez dute akordioaren berri eman nahi izan. Idatzi bateratua gertu izandakoan onartutako proposamena zein den azalduko dutela adierazi dute. Zapatuan Maritxuren bederatzurrrena egingo denez, zapaturako ohiko tokian jarriko da irudia. Iaz gorabeherak izan ziren Parrokiako obrak oztopa zitzakeela, eta irudia beste nonbait jarri nahi zen. Azkenean baina, akordiorik lortu barik, betiko tokian jarri zen irudia.



Maritxun
goizaldera arte
zabalik!

ADI IKASLEAK!!

Orain PAPUREn OTARTEKOAK daude!!

Otarateko beroak eta pintxoak, Maritxu Kajoi egunetik aurrera.

- Frankfurt saltxitxak, gainerretako gaztarekin
- Txorizoa
- Solomoa
- Solomoa piperrakin
- Eta askoz gehiago...



Ignazio Zuloaga, 2
Tfnoa: 79 80 50
ARRASATE

IKASLEENTZAT PREZIO BEREZIAK!!



Clinton Holtz Urbina Maltzaga taldeko amerikarrak Opel Astra berria estreinatu du. Takolok eman zion Astra urdina ostiralean eta pozik

baino pozago hartu zituen giltzak Holtzek. 2.09 altuerako mutikote bat Astra batean ikusten baduzue, ez harritu! hori Clinton Holtz da.



Altsasu bihurtu zen **Eginzaleen bilgune** domekan. Egin egunean milaka lagun elkartu zen eta jai giroan pasa zuten eguna. Arrasateko Eginzaleek ere ez zuten kale egin eta Urdiaineko zelaietan igaro zuten domeka.

San Andres eta Musakolako Gaztetxokoek lehen urteurrena bete dute eta larunbatean bertako neska-mutilek merendola batekin ospatu zuten lehen urtebetetzea. Arratsaldeko 6etan hasi zen jai **San Andresko Gazte-txokoan** eta ilunkada arte iraun zuen.



REWARD

ALEX eta PILARE
"TALO and CLYDE"

Bikote arrisksua, Kontuz! Seguruenik ezkontzera doazela esango dizuete, baina ez jaramonik egin, zuen karterak lapurtzeko erabiltzen duten truko zaharra besterik ez da.

Ikusten badituzu deitu 00.00.00 Txalapartefonora, eta berehala bialduko dugu "Heredia Komandoa" bi zoro hauek atxilotzera.

ARRASATEKO HERRIA, ERNE IBILI!

Ez, ez dira gaizkileak ezta lapurrak ere. **Alex Zabala** eta **Pilare Fernandez de Arroiabe** zapatuan ezkondu ziren Apotzan eta kuadrilakoek egin zien broma baten ondoren, irudietan duzuen

kartelez josita agertu zen Arrasate. Heredia komandokoek asko pentsatu eta gero, ez atxilotxea erabaki eta Gure ametsan bukatu zuten usteko lapurrek eta komandokoek. Zorionak bikote!



ARRASATE HOTELA



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

Epelde

- Estudioa
- Ezkontzako erreportaiak
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24
Tfnoa: 79 19 71

Maixu Arano, 8
Tfnoa: 79 26 23



Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tfnoa: 79 22 70

Maritxu kajoi, hau da, txikiteroen egunerako dena dago gertu, baita egun berezi hori iragarriko duen kartela ere. Datorren ostiralean arrasatearrak galaz jantziko dira hain sonatu egin den Maritxu Kajoi eguna ahalik eta ondoen pasatzeko.



IZEN PROPIOAK

● Auzo-alkate berriak izendatu ziren ostiraleko plenoan. **Iñaki Azkoaga** San Andresko auzo alkate berria da, **Jose Mari Fernandez de Arroiabe** Musakolako, **Aitor Murgoitio** Udalako auzo alkatea, Alejandro Mendizabal Garagartzakoa eta **Aitor Ibarondo** Mehatzereakoa.

● **Yolanda Gordobilek** 25 urteko arrasatearrak funtzionari izateko oposaketak gaintitu ditu eta Barzelonako gizarte epaitegira joango da epaitegi agente lana betetzera. Yolandak zuzenbidea ikasi zuen Donostian.

● **Javier Mongelos** MCCko Kontseilu orokorreko presidentea jubilatuta egin da. Hemendik aurrera presidente kargua **Antonio Cancelo Alonsok** beteko du. Antonio orain arte MCCko elikagai eta banatze saileko presidenteordea izan da.

● **Jon** eta **Aitor Sarasua** disko bat grabatzen ari dira Elkar disketxean. Diskoaren izenburua Fauna txiki bat bertso berritan da. Pianoa eta beste instrumentu batzuk lagundutako bertsoek osatzen dute diskoa. Durangoko azokan plazaratuko da.

● **Maier Uranga** 16 urteko arrasatera ETBko *Super Bat* saioako aurkezle berria da. Maierrek 3. REM ikasten du ALMEnen.



Argazkiko katu pertsiar beltza galdu egin da Erguin inguruan. Emea da, ez du katairik eta **Garfi** deitzen diote. Aurkitzen baduzue dei egin edo ekarri ARRASATE PRESSERA, faltan botatzen dute eta.


Yoa'z oinetakoak
ARRASATEN ZABALDU BERRIA!!

Biteri, 13 Barrenkale, 9
Tfnoa: 79 21 71 Tfnoa: 76 22 86
ARRASATE BERGARA

LANBIDE HEZIKETA KURTSOAK F. P. 1. Tituloa

| | |
|--|--|
| Pelukeria Estetika Kirol masaia | Klinika Laguntzailea Geriatría Psikiatria |
|--|--|

Beauty's Gral. Loma, 4 • GASTEIZ
Tfnoa: (945) 23 33 99 *el's*



3 HANDIXEK EGUNETAN

Lea eta Aperri memorialela

Urriak 12, 13 eta 14

Izenemate epea:

Urriak 6

Prezioa: 3.500 pta

(Tfnoa: 77 12 28)

IBILBIDEA

Zalduondo, Aizkorri, Gatzaga

• • •

Gatzaga, Aramaio, Anboto, Urkiola

• • •

Urkiola, Barazar, Gorbeia, Murua

Antolatzaileak

AEDko Gazteak

**Haurdun
dauden
neskentzat
egun-
-eguneko
moda**



**Udazkene-
rako moda
gaztea,
taila
bereziak
barne**

Laura

**Erdiko Kale, 30
Tfnoa: 79 05 80
ARRASATE**



Jatetxe denetan egoten da bazkaltzeko aukera bat baino gehiago.

Etxetik kanpora bazkaltzea

Beñardo Kortabarria

Presaka bizi da gizarte modernoan. Lanak du garrantzia eta lanean pasatzen dira eguneko ordu gehienak. Askok herritik kanpo lan egiteagatik edo lanak ez diolako astirik ematen, eguerdikojatordua etxetik kanpo egin behar izaten du. Otartekoa, plater konbinatua edo menua janda ere, eguneroko bazkaria eten bat izaten da laneko stresean. Eten horretan bilatzen dena: etxetik kanpo etxean moduan jatea.

Sirena edo txirrina entzun ondoren, erromesaldi batean bezala, presaka abiatzen dira langile eta ikasleak. Helburua: ahalik eta denbora laburrenean lantegiko edo ikastetxeko jangelara iristea. Bandejatxoa eskuan, lantokiko katean giza, hiladan jarri beharra dago. Eskuzapiak, mahaitresnak, edaria eta ogia bandejara. Lehen platererako aukera aurrea eta bigarrenkoa ondoren. Oreka eusten saiakera berezia eginez, bandeja kili-kolo, mahairantzat. Han egongo dira eguneroko mahaikideak, baz-

kalordua desberdin egiten laguntzen dutenak. Orduerdiz edo ordubetez lasai samar egoteko unea, noiz behinka erlojuari begiratzea ohitura bihurtu arren. Ia konturatu barik, zutitu eta berriro lanera edo ikastera, iritsitakoan baino bareago, hala ere. Eguneko menuaren eragina. Jangelatik irten aurretik, dena dela, bandeja hartu eta mahaia erdi-jasota utzi behar. Lan gutxiago gero garbiketa egin behar dutenentzat. Inguruko hainbat eskola eta lantegietan eguneroko errepikatzen den errutina da aurrekoa. Errito horretan parte hartzen dutenek ez

dute normalean dirurik eramaten poltsikoan, bono-sistema erabiltzen da eta. Aipatutako tokietan normalean jende askok jan behar izaten du oso denbora estuan. Ondo jan eta ahal bada azkar, hori izaten da kontua. Menua nolakoa? ba, egunero horrelako jangeletan aitortzen dutenez etxean edo edozein jatetxean jan daitekeenaren parekoa: 2-3 aukera lehengo platerean eta beste hainbeste bigarrenean, postrea eta abar ere, jakina.

JENDE MUGIMENDUA

Potajea, entsaladak, pasta edo barazkiak hasteko.

Okelak, hegaztiak, arrainak edo arraultsetan oinarritutako jakiak bigarrenerako. Postrea, ura, ardoa eta ogia osagai gisa. Aipatutakoa izan daiteke edozein eguneko menuaren deskribapena. Horrelako 900 bazkari inguru banatzen dira egunero eguneko menua ematen duten Arrasateko hamazortzi jatetxeetan. Jende mugimendu handia duda barik, baina ez horregatik ase ezinekoa, guztien artean txanda bakar batean 1.400 lagunendako tokia dago eta. Hori gutxi balitz, kanpotik datozenei jaten emateko taberna gehienetan pintxoak, ogitar-tekoak edo kazuelatxoak dau-de. Ezin ahaztu gainera kartan oinarrituta edo enkarguz janaria ematen duen jatetxe gehiago dagoela. Baina, noski, egunero etxetik kanpo dabiltzanak ezin egunero horrelakorik ordaindu.

Aukeren sorta zabalean, poltsiko guztiendako tokia: otartekoak 300 pta. tik 400 pta. ra artean, eguneko menua 800 eta 1.000 pta. artean, eta kartara bazkalduz gero, hortik gora!

GIRO ATSEGINAREN BILA

Obretan diharduten lan-gileak, jantokirik ez duten



Lanean atsedenalditxoa egiteko parada eskaintzen du eguneko menuak.

Auzo Lagun eguneko menuaren espezialistak

Auzo Lagun kooperatiba, talde handietarako janaria prestatzeaz arduratzen da, lantegietarako eta ikastetxetarako gehienbat. Eta itxura baten ondo ari da, arlo honetan Euskal Herriko liderra izateaz gain, urte bukaerarako ISO 9002 kalitate agiria jasotzea espero dute eta.

Auzo Lagunen lana sei departamentutan banatzen da: kalitatea, superbisioa, erosketak, produkzioa, programazioa eta salmentak. Sei lan-talde horren ihardueraren ondorioz, Auzo Lagunek egunero hiru lehen plater, hiru bigarren eta hiru postre egiteko gaita-

sunu du. Menua osatzerakoan, elikaduran duen eraginari zuhur begiratzen zaio Auzo Lagunen, batez ere janaria umeendako bada.

Egunero 7.000/8.000 bazkari inguru prestatzen dira enpresa honetan. Horretarako lana produktu eta era desberdinetan egiten da: 1) Beroa. Produkturik arruntena, prestatu eta toki desberdinetan banatzen dena. Sail honen barruan kontuan hartu behar da janari guztia ez dela prestatu-teramaten. Batzuetan jaki batzuk momentuan egin behar izaten dira, frijitzekoak gehienbat, eta horiek erabat prestatu barik

eramaten dituzte. 2) Hotza. Gaur egin eta bihar jan daitezkeen jakiak izaten dira. Normalean bost eguneko iraupena ere izan dezake janari mota honek. 3) Hutsean ontziratua. Estatu osoan banatzen den produktua. Hilabeteko iraupena izan dezake. 4) Banatu behar den tokian bertan janaria prestatu, horretarako eskulana eta lehengaiak jarriz. Gero eta gutxiago egiten da lana era honetan.

Auzo Lagunen eguneroko erronkaizaten da jakiekin asmatzea. Sarri samar gertatzen da hiru plater prestatu eta bat berehala amaitzea. Gusto kontua jakina.

lantegi batzutakoak edo saltzaileak izaten dira normalean eguneko menuaren bezero. Ikasleek gehiago jotzen dute otartekora. Noiz behinkako bezeroak garrantzitsuak dira eguneko menua eskaintzen duten jatetxeentzat, baina oinarrizkoak egunerokoak dira. Jatetxe gehienek azpimarratzen dute eguneroko bezero finkoak edukitzearen garrantzia, eta ez bakarrik diru-sarrerara segurua bermatzen dutelako. Askotan hori baino gehiago izaten da, jatetxeko langileen eta bezeroaren artean harreman bero samarra sortzen da. Elikadura onak du garrantzi gehien, baina ezinbestekoa da giro atsegin bat izatea bazkaltze-



Talde handiei jaten ematen die Auzo Lagunek.

ko orduan. Jatetxera doanarentzat aurpegi ezagun batekin topo egiteak asko esan nahi du; baita zerbitzariarentzat ere, aurrez zertaz hitz egin dezakeen, zer eskatuko

duen, kafea bai edo ez... norberaren gustoko ezagutzera iristen da.

Toki batean edo bestean, otartekoarekin edo eguneko menuarekin... On egin!

“Lantegi eta ikastetxeetan aipatzen dutenez etxean edo edozein jatetxean jan daitekeenaren parekoa da menua”



“Eguneko menua ematen duten jatetxe guztien artean txanda batean 1.400 lagunendako bazkaria emateko tokia dago”.



“Auzo Lagun Euskal Herriko liderra da bere arloan eta urte bukaerarako ISO 9002 kalitate agiria jasotzea espero du”.



“Noiz behinkako bezeroak garrantzitsuak dira eguneko menua eskaintzen duten jatetxeentzat, baina oinarrizkoak egunerokoak dira”.

Eguneko menuak Arrasateko jatetxeetan



| | Kostea | Aukerak | Zenbat bazkari | Tokia | Besterik | Egunero zbalik? |
|-------------------------|--------|---------|----------------|-------|--------------------|-----------------|
| Aldapa (Batzoki) | 900 | 5/1 4/2 | 80-90 | 150 | Ogitartekoak | Igandeak ezik |
| Bittori | 900 | 5/1 5/2 | 25-30 | 130 | Ogitartekoak | Igandeak ezik |
| Bueno | 1000 | 3/1 3/2 | 40 | 60 | Ogitart./Konbinat. | Egunero |
| Cepa Riojana | 850 | 4/1 5/2 | 30-50 | 40 | Ogitart./Konbinat. | Igandeak ezik |
| Errestikoa | 1.000* | 4/1 4/2 | 40-80 | 110 | Ogitartekoak | Astearteak ezik |
| Gau Txori | 800 | 4/1 4/2 | 35-40 | 40 | Ogitartekoak | Igandeak ezik |
| Gatzaga | 1.000* | 6/1 6/2 | 60-70 | 74 | — | Igandeak ezik |
| Gorosti | 1.000 | 3/1 3/2 | 50-60 | 65 | Ogitart./Konbinat. | Igandeak ezik |
| Hilarion | 900 | 6/1 6/2 | 40 | 50 | Ogitart./Konbinat. | Egunero |
| Hostal | 900 | 6/1 6/2 | 100 | 70 | Ogitartekoak | Igandeak ezik |
| Itxaso | 900 | 2/1 2/2 | 10 | 20 | Ogitartekoak | Egunero |
| Kataide | 850 | 8/1 8/2 | 150 | 200 | Ogitartekoak | Egunero |
| Manolo | 900 | 5/1 6/2 | 50 | 60 | Ogitart./Konbinat. | Egunero |
| Maxi-Eroski | 900 | 4/1 4/2 | 40-50 | 65 | Ogitartekoak | Igandeak ezik |
| Muxibar | 850 | 5/1 5/2 | 30-35 | 50 | Pizzak | Egunero |
| Txirrita | 900 | 3/1 3/2 | 15 | 60 | Ogitart./Konbinat. | Egunero |
| Uxarte | 900 | 3/1 3/2 | 10-15 | 100 | Ogitart./Konbinat. | Egunero |
| Zure Etxea | 800 | 3/1 3/2 | 30 | 60 | Ogitart./Konbinat. | Egunero |

- Egon, Arrasaten jatetxe gehiago dago, baina koadroan eguerdiko eguneko menua ematen duten jatetxeak agertzen dira bakarrik.
- Jatetxe denetan, bi plater ematen dituzte, batzuk aurrez entsalada eskaintzen duten arren. Denek ardoa, ura eta postrea barne dituzte.
- *Aukerak* sailean lehenengo eta bigarren plateretan zenbat aukera dauden aipatzen da.
- (*) Kafea prezio barruan dago.

Mondra eskubaloi taldea 1995-96 denboraldirako

Lehen mailako eskubaloi-koek urriaren 14an hasiko dute 95-96 denboraldia. Arrasate eta Avilesina taldeek neurtuko dituzte indarrak Iturripen arratsaldeko 6.30etatik aurrera. Denboraldi ofiziala hasi baino lehen arrasatearrak lagunarteko partidua jokatuko dute zapatuan arratsaldeko 7etan Trapaga taldearen aurka Iturripen.

Eskubaloikoek bi fitxaketa

berri egin dituzte aurten: Saul Gonzalez atezaina eta Iñigo Lopez de abetxuko hegalekoa. Beste bi jokalarik lehen terriorialetik igo dute: Eneko Arrietak eta Fran Gimenezek.

Baina nobedade handiena entrenatzaile postuan egongo da. Rosa Lasagabaster 24 urteko heziketa fisikoan lizentziatutako eskoziarrak gidatuko du taldea aurtengo denboraldian.



Jose A. Moreno
21 urte
1.74 altuera
66 kilo
Atezaina



Saul Gonzalez
18 urte
1.80 altuera
75 kilo
Atezaina



Ibon Azkue
23 urte
1.67 altuera
73 kilo
Atezaina




Angel Moraleja
28 urte
1.70 altuera
75 kilo
Hegalekoa




Jon Iraola
23 urte
1.83 altuera
78 kilo
Hegalekoa



Igor Ansoategi
22 urte
1.72 altuera
72 kilo
Hegalekoa




Fran Jimenez
21 urte
1.79 altuera
78 kilo
Hegalekoa



Asier Kortabarria
23 urte
1.88 altuera
80 kilo
Hegalekoa




Iñigo Lz. de Abetxuko
20 urte
1.88 altuera
87 kilo
Hegalekoa



Ibon Enbil
20 urte
1.93 altuera
95 kilo
Hegalekoa




Ricardo Santacristina
25 urte
1.82 altuera
90 kilo. Hegalekoa




Eneko Arrieta
19 urte
1.79 altuera
76 kilo
Zentrala




Jokin Esnal
22 urte
1.86 altuera
80 kilo
Zentrala



Mikel Loiti
23 urte
1.70 altuera
72 kilo
Pibota



Eneko Galdos
20 urte
1.88 altuera
81 kilo
Pibota



Rosa Lasagabaster
24 urte
Entrenatzailea



Jesus Mari Herrero
40 urte
Delegatua



Mondrako emakumezkoek domekan izango dute denboraldiko lehen erronka

Emakumezkoen Mondraren lehen erronka

Irailaren 5etik aurrendenboraldia prestatzen ibili eta gero, domekan hasiko dute 95-96 denboraldia Mondrako emakumezkoek. Mondrak eta Intxaurrendok elkarren aurka neurtuko dituzte indarrak Atxabalpe ondoan goizeko 11.30etan.

Emakume taldean ez dago nobedade handirik. Bi fitxaketa berri egin dituzte, Susana Tola erdilaria eta Goiatz 16 urteko aurrelaria. Beste bik utzi dute taldea: Pakik botak zintzilikatu ditu eta Arantxi Madrileria joan da ikastera eta bertako talde batean jokatu du.

Horrela bada, 19 jokalaririk osatuko dute aurtengo taldea. Atezainak: Jone eta Nagore. Atzelariak: Larraitz, Titu, Izar eta Rebeca. Erdilariak: Kakun, Iratxe, Bakartxo, Susana, Idurre, Saioa,

Ainhoa, Oihana eta Zorione. Erasoan jokatzeko berriz, Goiatz, Elena, Amaia eta Saioa. Entrenatzailea Juanina Garai da Esti Loitiren laguntzaz eta delegatua Xabier Madariaga.

Taldearen aurtengo helburua mailaz igotzea da eta horretarako talde sendoa osatu dute. Emakumezkoen ligan 17 talde daude eta arrasatearrak Elgoibar eta Alde Zaharra taldeekin batera indartsuenak dira. Goiko postuetan ibiltzeko aukera handia izan dezakete.

Alaves-Mondra Mendizorrotzan

3. mailako Mondrak Alaves taldearen kontra jokatu du denboraldiko boskarren jardunaldia. Mendizorrotzako futbol zelaian zapatuan arratsaldeko 5etan

hasiko da neurketa. Mondrak jokatuako partiduetatik ez du bat bera irabazi eta puntu barik dago sailkapeneko azken tokian. Alavesek 6 puntu ditu eta 10. lekua betetzen du sailkapenean. Zivojeciv-ek ezingo du Haritz Zabaleta zelairatu. Santurtziren kontra txartel gorria ikusi zuen eta hiru partiduko zigorra bete behar du Eibarko jokalaririk. Neurketa Arrasateko taldearentzat garrantzitsua da, puntu premian daude eta sailkapeneko lehen puntuak eskuratzeko aukera ona izan dezakete Mendizorrotzan. Zapatuko neurketa galtzea arriskutsua izango litzakete Mondrarentzat, dagoeneko sailkapeneko zuloan dago bakar bakarrik eta hortik irteteko ezin du berriro ere kale egin.

Urbina Maltzaga eta Caja Cantabria bigarren ihardunaldiak

Urbina Maltzagak Askatuak kontratuak jokatu zuen denboraldiko lehen ihardunaldia eta Arrasateko taldeak galdu egin zuen 72-75. Samaniegoren mutilek jokalaririk onak direla erakutsi zuten baina oraindik taldean jokatzea nahi baino gehiago kostatzen zaiela. Askatuak taldekoek berriz, taldeko lanean oinarritu zuten jokua eta lan hori nahikoa izan zitzaizen aurkariak gaintzeko. Datorren zapatuan Torrelavegako Caja Cantabria izango dute aurrean arrasatearrek. Neurketa Vicente Trueba Torrelavegako kiroldegian jokatu da domekan arratsaldeko 6etan.

Caja Cantabria taldeak 96 eta 100 irabazi zuen Señorío de Zuastiren kontra jokatuako partiduan. Talde horretan amerikar bik jokatu dute eta Harstad izena kontuan hartzekoa da. Izan ere, lehen ihardunaldian berak bakarrik 42 puntu lortu zituen. Urbina Maltzagakoek, beraz, ondo kontrolatu behar dute jokalaririk amerikarra, oso trebea denez arriskutsua izan daiteke eta. Arrasateko jokalariek normaltasun osoz entrenatu dute astean eta domekarako gertu izango dira. Samaniegoren ardura handiena talde sendoena ateratzen asmatzea izango da garaipena lortzeko.

S. CARRASCAL S.L.
Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa
 Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
 Tfnoa / FAX: 79 01 82

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

| | |
|--|---|
| HAURDUNALDIA AMNIOZENTESIA ANTISORKUNTZA | MENOPAUSIA BASEKTOMIA BULAR PATOLOGIA |
|--|---|

SAN MARTIN OSASUNDEGIA
 Ramón M. Lili, 2 BERGARA
 Tfnoak: 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

ITSASKI
ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
 Tfnoa: 79 98 94



LAN ESKAINTZA

LANPOSTUAK: -ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA
- OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZU BURUA

IZAERA: Funtzionari lanpostuak. Goi mailako Teknikariak. A taldea.

OINARRIAK: Udaletxean jaso daitezke.

ESKABIDEAK: Oinarriak Gipuzkoako Boletin Ofizialean argitaratzen direnetik 20 eguneko epean aurkeztu behar dira Udaletxean.



LAN ESKAINTZA

LANPOSTUAK: - PEOIAK (3)
- AROTZA (1)

IZAERA: Aldi baterako kontratatu laboralak.

IRAUPENA: Urte bete.

BALDINTZAK: - 45 urtetik gora izatea.- Langabeturik egotea.

OINARRIAK: Udaletxean jaso daitezke.

ESKABIDEAK: Urriaren 7a baino lehen aurkeztu behar dira.



LAN ESKAINTZA

LANPOSTUAK: - EUSKALTEGIKO IRAKASLE LAGUNTZAILEAK

IZAERA: Aldi baterako kontratatu laboralak (praktikazko modalitatean).

BALDINTZAK:- Dagokion agiri akademikoa, azken lau urtekoa izatea.

- EGA agiriaren edo baliokide baten jabe izatea.

- INEM Enplegu Bulegoan izena emanda egotea.

OINARRIAK: Udaletxean jaso daitezke.

ESKABIDEAK: Urriaren 7a baino lehen aurkeztu behar dira.

● Jokin Mujika

Errobotak gure artean

EEBBtako zenbait museotan errobotek egiten dute begirale lana. Pariseko metro geltoki batzuk gainean erratza daramaten errobotek garbitzen dituzte. Orain arte errobotak pelikuletan bakarrik ikusi izan ditugu, baina laster gure artean izango dira.

Lau urteko lanaren ostean, Ikerlanen ere gertu dute bere kabuz mugitzen den errobotak. Errobot horrek VEA I du izena eta beroni "bizia" ematea lortu duen taldeko arduraduna da Jokin Mujika, Ikerlaneko Errobotika eta Automatizazio Departamenduko Arduraduna.

— Noiz hasi zineten errobot mugikorra egiten?

— 1991an hasi ginen errobot mugikorra garatzen eta iaz bukatu genuen. Oraingoz errobotak ez du aplikazio konkreturik izan, hau da, tresna eginda dago, baina orain funtzio batzuk bete ditzan moldatu behar da. Hori egitea erraza da, baina horretarako enpresaren baten eskaria jaso behar dugu.

Lehenengo proiektua bukatu eta aurten beste proiektu bati eman diogu hasiera. Kanpora irtetzeko gai izango den eta beso bat izango duen

errobot mugikorra egiten ari gara. Bigarren errobot honek VEA II du izena eta 97aren amaierarako bukatzea espero dugu.


— Errobotak zertarako erabiltzen dira?

— Munduko zenbait tokitan errobotak lanean ari dira. EEBBtan, adibidez, museo batzutan begirale lana errobotek egiten dute. Errobot horiek sensore batzuk erabiltzen dituzte (suarena, hezetasunarena...) eta informazioa estazio zentraletara bidaltzen dute. Parisen tren geltokiatarako zorua garbitzeko prestatu dira. Ospitaletan ere erabiltzen dira, geletara janaria edo medizinak eramateko.

— Ikerlango errobotak oraingoz ez du aplikaziorik izan baina eskaririk antzematzen da?

— Ez, oraindik ez. Etxeko erroboten munduari begira dagoela esan daiteke. Etxeko lanak egiteko moldatu nahi dira errobotak baina tresna horiek oraindik garestiak dira eta ezin dugu pentsatu gutxi barru errobotek etxeko lanak egingo dituztenik. Denborarekin merketu egingo dira eta arlo horretan izango da zenbait aukera.

— Zinemarako balio dezake Ikerlaneko errobotak?



— Entzun dudanez Tele 5n errobotak erabiltzen dituzte albistegiak grabatzeko. Kamaradun bi edo hiru errobot dituzte eta operadoreak agintzen die errobotei zein planu hartu...

— VEA II zertan aplikatu ahal izango litzateke?

— Etorkezinean elbarrituentzat izan daiteke lagungarria. Nahiz eta aulkia elektrikoak egon, gainean doanak gidatu behar du aulkia eta funtzio horiek errobotak bete ditzake; bakarrik gurgildun tresna bat egin beharko litzateke. Gizartea gero eta zaharragoa da eta etorkizunean gurgildun aulkietan ibiliko den jende gehiago izango da.

Errobot hau kanpora irtetzeko pentsatuta dagoenez, pertsonak joan ezin diren tokietara iristeko balio dezake. Urte amaierarako estruk-

tura eginda egotea espero dugu. Gero gurgilak eta besoa egin beharko dira.

— Buruhauste handiak ekarriko ditu horrelako tresna bat egiteak.

— Bai horrela da. Hala ere batzutan logikaz irtenbide sinpleak aurkitzen dira. Beste batzutan gehiago pentsatu eta ikerketa gehiago egin behar da.

— Zenbat lagun ari zarete esperimendu honetan lanean?

— Zortzi edo bederatzi. Batzuk errobotika departamendukoak gara eta beste batzuk beste departamendu batzuetakoak. Gure artean komunikazioa erraza da eta ideia polit bat bururatzen bazaigu, hantxe laneko giroan botatzen dugu. Hala ere batzutan batzarrak egiten ditugu noraino heldu garen jakiteko.

● **“Aurten beste proiektu bati eman diogu hasiera. Kanpora irtetzeko gai izango den eta beso bat izango duen errobot mugikorra egiten ari gara”.**

Jesus Maria Artze

Informatika bidez harriari forma ematen

10.000 edo 15.000 pta.gatik eta ordubeteen, zure erretratua edozein motako harriaren gainean egingo dizute informatikaren bidez. Hau irakurri eta gero harria eskuz lantzeko lana atzean geratu dela uste izango dute askok, baina "Marmolan"eko bazkideek bi teknikak bereiztu nahi izan dituzte.

— Zer egiten duzue "Marmolan"en?

— Harriaren gainean edozein lan egiten dugu. Marmolarekin, granitoarekin, keramikarekin eta metakrilatoarekin aritzen gara eta sukaldeendako gainazalak, bainugeletako hormak eta fatxadak apaintzen ditugu. Hilobietarako hilarriak, harmarriak eta familietako harrizko heraldikak ere egiten ditugu.

— Nondik ekartzen duzue harria?

— Gipuzkoako banatzaile batzuegana jotzen dugu eta bezeroak nahi duenaren arabera ekartzen dugu materiala. Harriak mundu osotik ekartzen dituzte.

— Harri mota bereziren batekin lan egiten duzue?

— "Pitillas"ko harri ezagunarekin ere egiten dugu lana. Azkenaldian oso modan dago. Harri hau etxaurretan erabiltzen da eta hormek are itxura hartzen dute. Gipuzkoako etxe berri gehienak harri mota honez estalita daude.

— Harri gainean egiten dituzuen marrazkiak nola egiten dituzue?

— Informatizatutako



sistema baten bidez, programa berezi batzuk ditugu eta. Sistema honekin euskal etnografiako marrazkiak eta euskal estelak marrazten ditugu. 124 letra tipo eta milaka marrazki egin ditzakegu.

— Informatikaren bidez harriari marrazkiak egitea nahiko gauza berria da. Sistema hau erabiltzen duen enpresa asko dago hemen?

— Erabiltzen dugun ordenadore sistema hau merkatura atera berria da eta gu izan gara inguruko

enpresen artean aplikatu duten lehenengoetarikoa bat. Egia esan, enpresa sortzeko arrazoi bat hori izan zen, hau da, gainontzeko enpresek eskaintzen ez zutena eskaintzea.

— Eta zein da zuen hurrengo erronka?

— Kontrol numerikoaren bidez marmolaren sistema mekanizatua erabili nahi genuke enpresan baina oso garestia da hori. Programa informatizatatu bat daukan makina bat da eta berak bakarrik egiten ditu marrazkiak.

— Eskatzen dira harri gainean egindako marrazki hauek?

— Beno, nahiko sistema berria da hau eta enpresa ere hasi berria da, beraz, ez diogu jendeari aukerarik eman gure lana ezagutzeko. Dena dela, kontuan izanik ordu batean pertsona baten erretratua egin daitekeela eta sistema honen bidez baserriak, paisaiak, harmarriak eta nahi den guztia marraztu daitekeela, jendeak eskatu egingo duela pentsatzen dut.

— Ze harri motaren gainean geratzen dira hobeto marrazkiak?

— Granitoan, harri honek diztira gehiago duelako eta pertsona baten erretratu bateko itxura hobeto igartzen direlako.

— Ez duzu uste sistema informatiko honen bidez aintzinako lan honen xarma galtzen dela?

— Bai, egia da, baina kontuan izan makina hauek erliebe baxuan baino ez dutela lan egiten, hau da, 2 edo 3 mm.ko sakonera baino ez dute lantzen. Sakonera gehiago nahi izanez gero, eskuz egin behar izaten da eta guk egiten dugu hori ere. Horretarako harria oso ondo lantzen dakien kantero bat daukagu.

— Harria eskuz lantzen dutenentzat kompetentzia zarete, ez?

— Bai eta ez. Hau gauza berria da eta ez dauka eskuzko lanarekin zerikusirik. Eskuzko lanak aurrera egingo duela uste dut eta geureak ere horrela egitea espero dut.

.....
“Sistema honen bidez baserriak, paisaiak, harmarriak eta nahi den guztia marraztu daiteke”

Filmeetako soinu bandak Amaia Antzokian


Bihar larunbata musika klasikoko emanaldia izango da Amaia Antzokian. Kontzertua "Artikutza" Orkestra gazteak eskainiko du Pedro Miguel Aginaga eta Sergio Zapirainen zuzendaritzapean.

Talde hau duela gutxi Artikutzako erreserba naturalean egin ziren musika ihardunaldietan sortu zen eta larunbateko kontzertuan, 10 egun iraun zuten ihardunaldietan egin zen lana eskaini da.


Orkestrako partaide guztiak gipuzkoarrak dira eta euren helburu nagusia musika klasikoarekin jendea modu desberdin batean bereganatzea da, horregatik jotzen dituzte banda sonoroetako obrak.

Egitaraua

Obra klasikoei dagokionez Vivaldi, Tchaikovsky, Albinoni eta Strauss-en bost obra ezagun eskainiko dituzte musikari gazteek. Filmeetako soinu bandari dagokionez berriz, J. Williamsen "La Lista de Schindler",



LA MISIÓN



E. Morricone-ren "La Misión" eta J. Barry-ren "Bailando con lobos" eta "Memorias de Africa" filmeetako doinuak eskainiko



dituzte. Kontzertua arratsaldeko 7.30etan izango da eta sarre-rak 500 pta.tan salduko dira takilan bertan.

Goikobalu Bartzelonara


Asteburu honetan Goikobalu abesbatzako 75 lagun Bartzelonara joango dira. Arrasatearrek hiriburu-kataluniarreko "Orfeo de Šans" kontserbatorioan abestuko dute Carmina Burana, euskal folkloreko hainbat abesti ezagun eta baita Kataluniako hainbat obra.

Rakel Murgiondok azaldu duenez, Jesus Maria Artzek kontserbatorioko hainbat arduradunekin duen harreman estuari esker egingo dute bidaia.

Abesbatzarekin batera Luis Ignacio Ruiz de Alegria, abesbatzako zuzendaria joango da.

"Nafarroa Oinez" erako bolondresak

AED elkarte aurtengo "Nafarroa Oinez" era laguntzera joateko jende bila dabil. Bertan egin beharreko lana txozna batean izango da. Interesatua egonez gero, jakin autobusa urriaren 14ean aterako dela eta dohainik izango dela.



POXPOLINEK, BERE BEREZITASUNETAN, AUKERA PAREGABEAK ESKAINTZEN DIZKIZU ZURE UMEENTZAT:


- Oinetakoak
- Amantalak
- Galtzerdiak
- Aterkiak
- e.a.

Zatoz eta ikusi itzazu!

Zerkaosteta, 15 • Tfnoa: 79 61 13 • ARRASATE



1970eko maiatzean Danok abesbatza eta Udal Bandaren kontzertua.



uskal Jaietan Lore Jokoetan 1896an Donostiako Orfeoiak Mondragoen eskaini zuen kontzertua argitaratu genuen joan zen astean. Jaialdi huraxe izan zen, gainera, orfeoi

famatu horrek ofizialki sortu aurretik, eman zuen lehen kontzertua.

Geroztik, 1902an misto egin zen Orfeoi Donostiara, emakume eta gizakumeek osatzen zuten. Garai hartan On Sekundino Esnaola zen zuzendaria. Juan Gorostidik hartu zuen haren ordekoa eta geroago, duela gutxi hil den zuzendari ezagunak, Antonio Ayestaranek. Azken honen garaian izan zen beste emanaldi berezi bat, berriz ere Arrasaten. Orfeoia ofizialki sortu zenetik 75 urte bete zirenean gure herrira kantatzerá etortzeko asmoa hartu zuten donostiarrek. San

Juan egunez izan zen, ekainaren 24an, San Juan Parrokian ilunkadako 8etan. Udalak antolatu zuen kontzertua eta bi zati izan zituen. Lehenik Victoria, Guridi, Iruarizaga eta Busca Sagastizabalen lanak eskaini zituen Orfeoiak, Ayestaran maisuaren zuzendaritzapean. Bigarren zatian Arrasateko Udal Bandaren txanda izan zen, eta Juan Arzamendi maisuaren ardurapean Ivanovici, Wagner eta Haendel-en obrak eskaini zituzten.

Lastima da, baina ez dago kontzertu handi hartako erretraturik, eta garai hartakoa den beste bat argitaratu dugu:

Danok abesbatzak eta Bandak 1970ean eman zuten lehen kontzertuarena.

1972ko Orfeoiaren emanaldi gogoangarri haren programa gordeta dago, hala ere, abesbatza handi horren historialarekin batera, eta hona hemen 1896ko lehen emanaldi hari buruz zer zioen: "1896ko ekainean Arrasateko Euskal Jaietara etortzeko trena hartu zuen donostiar talde batek, Lushuren zuzendaritzapean—Eskola Publikoetako gimnasiako irakaslea, bibote handia, begirada galdua— eta Idarreta fondak hartzen zuen plazatxoan kantatu zuen".

Arreta
handiko sukaldea

UGARAN
jatetxea


Giro
abegikorra

Garagartza auzoa. Tfnoa: 79 76 58

ARRASATE

Z E R N A H I A G O ?

Eloy Zubizarreta Errekadista



- Egin dituzun errekaueatik, zein izan da kurio-soena? Jende askok Donostian erosten du arropa eta han uzten du konponketak egiteko. Gero ni joaten naiz arropa jasotzera.
- Zein da enkargu arruntena? Enpresa, udaletxe eta ikasteetxetako dokumentuak.
- Zenbat balio du bidaiaria batek? 900 eta 1800 pta. bitartean.
- Noraino joaten zara? Donostiaraino eta tartean, Lasarte, Beasain, Zumarraga eta Tolosara ere.
- Zein kotxe erabiltzen duzu errekauetarako? Furgoneta bat.
- Lan honetan jende asko ezagutzen da? Bai, batez ere enpresa eta dendetako jendea.
- Egunean zenbat enkargu egiten dituzu? Hogei bat.
- Lan honek ematen du bizitzeko lain? Momentuz bai.
- Gertatu izan zaizu paketeren bat galtzea? Galdu ez, baina ohostu bai.
- Etxeko lanak egiten dituzu? Beno, erosketak egitera joaten naiz.
- Galdu zaizu baliozko zeozer noizbait? Ez.
- Zerk kezkatzen zaitu? Momentu honetan ez daukat kezka berezirik.
- Ekologizatzen duzu zure burua? Bai.
- Paper eta beiraren birziklapenean laguntzen duzu? Bai, egunkari eta paperak gorde eta kontenedoreetara botatzen ditut.
- Kirol bat? Pilota.
- Pilotari bat? Galartza.
- Beldurrezko pelikulak ala "western"ak? Beldurrezkoak.
- Emazteak zein plater prestatzen du ondoen? Legatza eta okela.
- Zerk kentzen dizu lanerako gogoa? Egia esan beti egon naiz lanerako prest.
- Zer falta zaio Arrasateri? Kaleetako hormak garbiago egotea.
- Ba al dakizu dantzan? Bai eta asko gustatzen zait. Valsak eta solteak ondo dantzatzen ditut.

LEHIAKETAK

"Hiru Handiak hiru egunetan" irtenaldia

AEDko Gazte Taldeak Hiru Handietara irteera antolatuko du urriaren 11, 12 eta 13rako. Ibilbidea honakoa izango da: Urriaren 11an Zalduduetatik Aizkorriara igo eta ondoren Gatzagara jeitsi. 12an Gatzatik Anbotora igo eta Urkiolara jeitsi bertako aterpetxean lo egiteko. Azken egunean Urkiolatik Anbotora igo eta Murgiara jeitsiera. Guztira 96 km.ko ibilbidea izango da, ibiltzeko orduak berriz, 21, egunero 7.

Irteera honetara mendian ibiltzea eta lagun arteko giro jatorrean ibiltzea gustoko duen edonor joan daiteke eta deialdia, bailara osoko gazteei dago zabalik. Irteera Aste Santuan egitekoa zen, baina eguraldi txarragatik urrira atzeratu zen. Oraingoan gehoa haizeak joko duela uste dute irteerako antolatzaileek.

Izena emateko epea urriaren 6an amaitzen da. Interesatuak 3.500 pta. ordaindu beharko dute, gastu guztiak prezio horren barruan daudelarik.



Kalitate gorena leihuetan.

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

Bitxori

ileapaindegia

Errebuealta, 10 behea
ARRASATE
Tfnoa: 79 27 61

• ESAERA •

“Ondo hastea ez da gutxi,
baina ez da asko ere”

SOCRATES

• JEROGLIFIKOA •

II
ZU

Non zegoen Patxi?

• GURUTZEGRAMA •

| | | | | | | |
|----|---|----|----|----|----|----|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 8 | | | | | 9 | |
| 10 | | | 11 | | | |
| 12 | | 13 | | | 14 | |
| 15 | | | | 16 | | 17 |
| | | 18 | | | 19 | |
| 20 | | | | | | |

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Mikel, Trikitixa eskolako presidentea. 8. Erraz ugaltzeko izaera duena. 10. Burgosko ibilgailuetan. 11. Erori gabe mantentzearen egoera. 12. Siberiako ibaia. 14. (Ald.) Sartu aditzaren infinitiboa. 15. Nolabait. 17. Alfabetoko 2. letraren izena. 18. Pentsamendu. 20. Oszilazioak zertu.

Bertikalak 1. Herritar guztiei dagokiena. 2. Ostegun. 3. Eguzkiaren jainko egiptoarra. 4. Zoroaldi. 5. Errepikatuz distiratu. 6. Ahuntzaren arra. 7. Esaldi. 9. (Ald.) Erretzeko landare hostoa. 13. Zein unetan. 16. (Ald.) Lekeition itsasoratzen da. 19. Kasik.

• HOROSKOPOA •

Aries Gezurak esaten dituzula susmaten dute zure lagunek.

Taurus Nahikoa! Egun oso bat pasatuko zenuke eztabaidatzen.

Gemini Arrautza batez zartagin handian ezin tortila handia egin.

Cancer Zure gorputzeko tenperaturak gora egiten du astelehenetan.

Leo Hego haizerik gabe zorutzen zara.

Virgo Ordu gutxi pasatzen dituzu etxean. Konturatu zara?

Libra Bazkalostean tea hartzea kome-ni zaizu. Ondo egingo dizu.

Scorpio Ahal den artean ez da itxaropena galdu behar.

Sagitarium Negar egiten ez dutenek ez dute lortzen. Badakizu zer egin.



Capricorn Zorte txarra gainetik ezin kendu? Pazientzia, lagun.

Aquarius Norbaitek egunero egiten du zurekin amets. Nor ote da?

Piscis Datorren hilabetetik aurrera arazoak konponduz joango dira.

Otxe-Aundi

Torrauzo, 9
Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI



Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,
EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU!!
Egin zure erreserba orain!!

Anna de Codorniu

“Barrelekaixoka” lehiaketan gaztetxoak nagusi

A TBko programazio berriaren aurkezpenari jarraipena emateko, hona hemen lehiaketa berri bat: “Barrelekaixoka”. Eider Otxoak, umeeekin ondo pasatzeko gogoz datorren atxabaltarrak, aurkeztuko digu saio berri hau asteartero 9.30etan.

Hiru umez osatutako bi talderen artean izango da lehiaketa eta talde bakoitzak lau froga gairiditu beharko ditu irabazi ahal izateko. Lehen frogan talde bakoitzak pertsona heldu bat eramango du platora txiste bat kontatzeko. Bigarrena trebetasun frogan izango da. Hirugarrenean, talde bakoitzeko partaide batek ahalik eta denbora laburren ahalik eta arropa gehien jantzi



beharko du. Azkenengo froga Karaokea izango da.

Lehiaketa umoretsu hone-

tan 8tik 12 urtera bitarteko gaztetxoek parte hartu ahal izango dute

KOMIKIA



INFORMATIBOETAN BERRITASUN UGARI

Urriaren 2an, programazio berriarekin hasteaz gain, albistegi berriarekin ere hasiko gara. Oraingo informatiboek gauza berri gehiago eskainiko dituzte.

Maider Egüések eguneroko albistegia aurkezten jarraituko du, baina Itxaro Zubillaga astelehen eta ostiralean “Kirol Txokoa” aurkezteaz arduratuko da informatiboaren barruan. Horrez gain, gonbidatu bat izango da albistegi bakoitzean eguneko berri baten inguruan informazio gehiago eman eta galderak egin ahal izateko.

Eguraldiak ere tarre berezi bat izango du informatibo bakoitzean. Egunero egunero eguraldiaren berri emango da Meteosataren seinalearen bidez.

Berrikuntzekin bukatzeko, informatiboetako dekoratua aipatu eta baita aurkezpen kareta ere.

SOLUZIOAK

Zubiaren azpian.

Jeroglifikoa:

la.
se. 9. Okabat. 13. Notz. 16. Ael. 19.
Ra. 4. Eroaldi. 5. Dir. 6. Aker. 7. Fra-
Bertalako: 1. Publiko. 2. Eguen. 3.
Oszilatu.
Ras. 15. Inola. 17. Be. 18. Ideia. 20.
kor. 10. Bu. 11. Oreka. 12. Lena. 14.
Horizontaleak: 1. Pereda. 8. Ugari-

Otxe-Aundi

1. PLATERA

Bi plater aukeran

Etxeoko gozoteria

2. PLATERA

Haragia edo arraina

Etxeoko ardo gorria eta beltza
Kafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

“PAL”

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 69

Etxebizitzak

- **Santa Teresan ikasle edo irakasleei pisua alokatzen zaie.** Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainua. Eguzkitsua. Prezio benetan interesgarria. Tfnoa: 79 61 95.
- **Baserría salgai Elorrion.** Bizitzen hasteko moduan dago. Tfnoa: (94) 682 02 95.
- **Neska bat jende bila dabil** pisua alokatzeko Arrasaten. Tfnoa: (94) 616 74 46. Dei egin arratsaldeko 6etatik aurrera. Sorkunde.
- **Gasteizen, unibertsitate gertu** bi ikasle-ondako pentisio osoa eskaintzen da. Tfnoa: (945) 26 73 28. Patxi.
- **Bi lagun behar dira Donostian pisua osatzeko.** Merkea! Tfnoa: 79 47 35. Patxi.
- **Bi lagun behar dira pisua osatzeko.** Tfnoa: 79 11 85. Eguerdietan edo gauetan.
- **Pisu baten bila nabil Arrasaten.** Tfnoa: 79 05 63. Gauez.
- **Gasteizen bi logela alokagai.** Tfnoa: (945) 27 86 79.
- **Etxe partikular batean logela bat alokatzen da,** Eskola ondoan. Nahiaz gero pentisio osoan. Tfnoa: 79 40 53.
- **Lagun bat behar da pisua osatzeko Bilbon.** Tfnoa: (94) 416 93 06. Maribel.
- **Donostian pisua osatzeko** lagun bat behar da. Tfnoa: 45 10 17.
- **Erdialdean 70 m² ko pisua salgai.** Tfnoa: 79 42 13.
- **Lotarako jendea hartzen dut.** Tfnoa: 79 42 13.
- **Bergaran 50m²ko etxebizitza salgai,** berritua eta oso prezio interesgarrian. Tfnoa: 71 53 49. Gaueko 8etatik 10etara.

Lana

- **Frantsesezko klase partikularrak** ematen dira. Tfnoa: 79 27 06.
- **Magisteritza eginda daukan neska batek** OHoko klase partikularrak emango lituzke. Tfnoa: 79 98 73. Rakel.
- **Emakumea behar da** pertsona nagusi bat zain-tzeko. Autoa izatea beharrezkoa da. Dei egin arratsaldeko 8etatik aurrera. Tfnoa: 79 98 26.
- **Andra erizain laguntzaileak** eta gerontologian esperientziadunak pertsona nagusiak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 34 53.
- **Ludi Berri musika taldea** zure ezteietan, ban-kete, kintada edo jaialdian jotzeko gertu. Tfnoak: 77 00 95 (Juan Luis Lekunberri) edo 77 11 63 (Jose Luis Arregi).
- **Klase partikularrak ematen ditut,** edozein gai. Esperientziaduna naiz. Tfnoa: 79 31 48.
- **OHoko klase partikularrak ematen ditugu.** Tfnoa: 77 04 98.
- **Ileapaindegi batean lan egiteko estetizien bat behar da.** Tfnoa: 79 87 62.
- **Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko andra bat gertu dago.** Tfnoa: 79 97 03.
- **Andra euskalduna** umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko gertu. Tfnoa: 79 07 73.
- **Klinika eta geriatrian** esperientziaduna, pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 34 09.
- **Psikologian lizentziaduna** klase partikularrak edo laguntza berezia emateko prest. Tfnoa: 79 86 28.
- **Injinerutzako ikasleak** OHO, BBB eta LHko eskolak ematen ditu. Tfnoa: 79 16 19.
- **Neska euskalduna behar da** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 01 59. Arratsaldez.

Salerosketak

- **Razesa markako txirrendua salgai.** 52 tailakoa. Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 03 80.
- **Larrun aldizkariaren lehendabiziko** 11 aleak saltzen ditut. Oskar. Tfnoa: (945) 22 95 71 (goizeko lehen orduan deitu).
- **Logela eta egongelako altzariak salgai.** Tfnoa: 71 52 45.
- **Ume eta matrimonio logelako** altzariak bota behar badituzu, dei egin eta gu pasatuko gara jasotzen. Tfnoa: 71 52 45.
- **Bigarren eskuko sofa salgai.** Tfnoa: 79 71 59.
- **Bulegoko mahaia, 4 aulki** eta zakarontzia saltzen dira. Dei egin 79 84 35 tfnoa.
- **Formato erdiko Zewza-Bronika** markako argazki makina salgai. Tfnoa: 77 12 28. Jabi.

Denetarik

- **Haurdunaldirako arropak gustora jasoko nituzke.** Tfnoa: 77 04 98. Goizez.
- **Urrezko eraztuna galdu dut** Ehune denda inguruan. Tfnoa: 77 04 98. Goizez.
- **Egunero goizeko 8etarako Gasteizera** joateko kotxe bila nabil. Tfnoa: 79 57 31.
- **Egunero goizeko 8etan Gasteizen** egon behar dut. Zure kotxean lekua izanez gero dei egin 79 60 04 tfnora. Carmen.
- **Egunero autoz Bilbora (Sarriko)** 2-2.30ak bitartean bazoaz, dei egin 20etatik aurrera. Tfnoa: 71 41 56. Oskar.
- **Grupo San Juanen larruzko** giltzaria aurkitu nuen "Bodet Sistemas" dauka idatzita. Tfnoa: 79 37 63.

Aste Gazte

Bekak

- "Novia Salcedo Fundazioak" enpresa-proiektu ideia bat dutenentzat, Audax Plana deitu du. Lizentziatuei zein diplomatuei zuzendua. Epea: Azaroak 30.
- 95-96 ikasturtean unibertsitate maila eta goi mailako beste ikasketak batzutarako (dantza, arte dramatiko, arte plastiko, diseñu ikasketak, soinketa, turismoa...) beka deialdia. Epea: Urriak 16.
- "Fundación Empresa Pública" ren beken deialdia, 30

urtetik beherako lizentziatu nahiz diplomatuei zuzenduta. Epea: urriak 6.

Ikastaroak

- "Euskal Dantzak" ikastaroa, "Lore Gazteak" taldearen eskutik. Habamost urte gorakoentzat. Maila desberdinak. Bikote mixtoek lehentasuna izango dute. Ostiralero, 7etatik 8.30etara. Urriaren 20an hasita Santamasak arte. Prezioa: 1.000 pta.
- Argazki ikastaro bi:
 - a) Hastapen mailakoa, aste-

arte eta ostegunetan, azaroaren 7an hasita; ordutegia: 6.30etatik 8.30etara; tokia: ASA elkar-tearen lokaletan; matrikula: 3.000 pta, 1.500 ikasle eta langabetuentzat. Plaza mugatuak.

b) Sakontze Maila: urriari, 7.15etatik 9.15etara, guztira, 20 ordu. Matrikula; 3500 pta, 2000 ikasle eta langabetuentzat.

Lehiaketak

- "Gabriel Aresti" XIII. ipuin lehiaketa. Edozein nazio-ko idazlek har dezake parte. Ipuinak euskeraz nahiz gazte-leraz idatziak izan beharko dira. Epea: urriak 13.

"Gurasook ia inoiz ez dakigu zer egiten duten gure seme-alabek"

MONTXO ARMENDARIZ, ZINEMA ZUZENDARIA (EL PAIS)



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65


ALTZARIAK

Berango

Berangok, sukaldearen ekipamendu osoa, berriztutako erakusketa ikustera gonbidatzen zaitu, kolore eta diseinuan gaurko modelo guztiez osatuta.

- Horretaz gain:
- Obra zuzendaritza
 - Barruko erreformak
 - Apainketa eta proiektuak
 - Neurrirako armairuak, ate korritzaile eta tolesgarriekin

Gainera orain, Berangon erositako sukalderako altzariak **doan lor ditzakezu!**



5 URTEKO
GARANTIAZI!



Legarre Pabiloia, z/g
Gipuzkoa Etorbidea • ARRASATE
Tfnoa: 79 01 92

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

Gama zabalena zure eskura

Kolore, azalera, materiale eta forma berriek aukera anitzak eskaintzen dituzte. 'IKER'en guzti hau zure espaziora moldatzen dizugu txoko praktiko eta beroak sortuz.

'IKER'en zure proiektua zure eskura dago.

SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Plaza, z/g
ARRASATE • Tfnoa: 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52
ARRASATE • Tfnoa: 79 99 42